



PRENTSA-DEIALDIA

Abenduaren 5ean, osteguna, 11.00etan Bilboko Koral Elkartean Gabonetako Soinuak jaialdiaren hamabosgarren edizioa aurkezten da. Aurten ere, Eskolan Kantari, Bilboko Koral Elkarteko Haurren Korua eta Leioa Kantika Korala berriro elkartuko dira euren ahotsak batzeko. Gabonetako Soinuak Euskaldunan, CaixaBank Fundazioaren laguntzarekin "la Caixa" eta Bizkaiko Foru Aldundia.

CONVOCATORIA DE PRENSA

El jueves 5 de diciembre a las 11.00 en la Sociedad Coral de Bilbao se presenta la edición número quince de Gabonetako Soinuak. Un año más, los integrantes de Eskolan Kantari, el Coro Infantil de la Sociedad Coral de Bilbao y Leioa Kantika Korala aúnan sus voces y la Navidad vuelve a sonar en Euskalduna con apoyo de CaixaBank, Fundación "la Caixa" y la Diputación Foral de Bizkaia.

Parte-hartzaileak | Intervienen

Begoña de Ibarra

Directora de cultura de la Diputación Foral de Bizkaia

Ana Garibi

Responsable de Acción social de la dirección territorial Norte de CaixaBank

Iñigo Alberdi

Bilboko Koral Elkarteko Zuzendari orokorra | Director general de la Sociedad Coral de Bilbao



Fundación "la Caixa"



Bilboko Koral Elkartea
Sociedad Coral de Bilbao

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bizkaian Gabonei ongietorria egiten dien magia korala

Bilbon, 2024ko abenduaren 5ean- Datorren abenduaren 22an, 19:00etan, Euskalduna Auditorioan Gabonetako Soinuak kontzertuaren hamabosgarren edizioa egingo da. Gabonetako ekitaldi klasikoa Bilboko Koral Elkartek antolatzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren, "la Caixa" Fundazioaren eta CaixaBanken laguntzarekin. Irrikaz espero izaten den kontzertuak Bizkaiko ahots gazte nabarmenenak biltzen ditu urtero, tradizioa, talentua eta festa-espiritua uztartzen dituen esperientzia aparta eskaintzeko.

Oraingoan, kontzertuan Eskolan Kantari proiektuan parte hartzen duten eskola-koruek, Bilboko Koral Elkarteko Haurren Koruak eta Leioa Kantika Korala ospetsuak, bere bikaintasun artistikoagatik nazioartean aitortuak, abestuko dute. Gabonetako Soinuak-ek askotariko piezaz osatutako errepertorioa eskainiko du, kontu handiz hautatua, hala pieza tradizionalak nola gaur egungo moldaketak, Bizkaiko musika- eta koru-aharatasuna ospatzeko.

Ekitaldia, Xabier Madariaga kazetariak gidatuko duena, bere kalitate artistikoagatik ez ezik, bere hezkuntza- eta gizarte-izaeragatik ere nabarmentzen da. Eskolan Kantari-ren bidez, Bilboko Koral Elkartek ikastetxeetan koru-ikaskuntza eta -jardunbidea sustatzen du, baita hainbat balio ere gazteen artean, hala nola lankidetzak, diziplina eta sormena. Proiektua musika koralararen eta hezkuntza-komunitatearen arteko zubia da, integrazioa eta garapen pertsonala musikaren bidez bultzatzen dituen. Edizio honi Deusto Eskola, Tiboli Eskola, Scientia Bilbao Ikastetxea eta Basozelai Gaztelu Eskola ikastetxeek emango diote hasiera.

Kontzertua *Dringilin Dron* eta *Navidad, Navidad* kantekin hasiko da, gero *Ponpiola* eta *¡Viva la Navidad!* etorriko dira, Bilboko Koral Elkarteko Haurren Koruak Eskolan Kantari-rekin batera abestuz. Ondoren, Jose Luis Ormazabalaren zuzendaritzapean, *Mary sat a Rockin'* eta *Oye*. Leioa Kantika Koralak, Basilio Astulezek zuzenduta, errepertorio zabala eskainiko du: *Springdans fra Vestfold*, *Ubi Caritas*, *Lao Rahal Soti* eta *Ukuthula*, baita *The Rose*, *Apple tree* eta *Neguko Izpiak* ere, hari-instrumentuen laukote batek eta bakarlari nabarmenek lagunduta. Kontzertuari amaiera emateko, *Cantemos a María* eta *Hator, hator* tradizionalak abestuko dira, koru-bikaintasunaren eta Gabonetako espirituaren ospakizun hutsa.

Sarrerak, 15 €-ko prezio bakarrean, Euskaldunako leihatilan eta haren webgunean daude salgai. 200 ahots baino gehiago batuko dira ospakizun honetan, zalantzarik gabe auditorioa Gabonetako magiaz bete eta publiko guztiarentzako ikuskizun ahaztezina eskainiko duen kontzertuan.



Fundación "la Caixa"



Bilboko Koral Elkartea
Sociedad Coral de Bilbao



La magia coral que da la bienvenida a la Navidad en Bizkaia

Bilbao, 5 de diciembre de 2024 - El próximo 22 de diciembre a las 19:00 horas, el Auditorio Euskalduna será escenario de la décimo quinta edición de Gabonetako Soinuak, un clásico navideño organizado por la Sociedad Coral de Bilbao con el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia, la Fundación "la Caixa" y CaixaBank. Este esperado concierto reúne cada año a las voces jóvenes más destacadas de Bizkaia para ofrecer una experiencia única que combina tradición, talento y espíritu festivo.

En esta ocasión, el concierto contará con la participación de los coros escolares integrados en el proyecto Eskolan Kantari, el Coro Infantil de la Sociedad Coral de Bilbao y el prestigioso Leioa Kantika Korala, reconocido a nivel internacional por su excelencia artística. Gabonetako Soinuak ofrecerá un repertorio variado y cuidadosamente seleccionado, que incluirá desde piezas tradicionales hasta arreglos contemporáneos, celebrando la riqueza musical y coral de Bizkaia.

El evento, conducido por el periodista Xabier Madariaga, no solo destaca por su calidad artística, sino también por su dimensión educativa y social. A través de Eskolan Kantari, la Sociedad Coral de Bilbao impulsa el aprendizaje y la práctica coral en centros escolares, fomentando valores como la cooperación, la disciplina y la creatividad entre los más jóvenes. Este proyecto representa un puente entre la música coral y la comunidad educativa, promoviendo la integración y el desarrollo personal a través de la música, siendo Deusto Eskola, Tiboli Eskola, Scientia Bilbao Ikastetxea y Basozelai Gaztelu Eskola, los centros participantes que abrirán esta edición.

El concierto abrirá con *Dringilin Dron y Navidad, Navidad*, seguido de *Ponpiola* y *¡Viva la Navidad!*, interpretadas por el Coro Infantil de la Sociedad Coral de Bilbao junto a Eskolan Kantari. Continuará con *Mary sat a Rockin'* y *Oye*, bajo la dirección de Jose Luis Ormazabal. Leioa Kantika Korala, dirigido por Basilio Astulez, ofrecerá un repertorio diverso con piezas como *Springdans fra Vestfold*, *Ubi Caritas*, *Lao Rahal Soti* y *Ukuthula*, además de *The Rose*, *Apple tree* y *Neguko Izpiak*, acompañadas por un cuarteto de cuerdas y destacadas solistas. El concierto cerrará con el tradicional *Cantemos a María* y *Hator, hator*, celebrando la excelencia coral y el espíritu navideño.

Las entradas, a un precio único de 15€, ya están disponibles en la taquilla del Euskalduna y su página web. Más de 200 voces se unirán en esta celebración que promete llenar el auditorio de magia navideña, ofreciendo un espectáculo inolvidable para todos los públicos.



Fundación "la Caixa"



Bilboko Koral Elkartea
Sociedad Coral de Bilbao

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GABONETAKO SOINUAK 2024

Eskolan Kantari

Deusto Eskola, Tiboli Eskola, Scientia Bilbao Ikastetxea y Basozelai Gaztelu Eskola

Dringilin Dron, Herrikoia

Navidad, Navidad, José Luis Perales / Arr.: Sandra Calvo Abarzuza

Piano: Alberto Sáez Puente

Zuzendaritza: Sandra Calvo Abarzuza / Nora Franco Madariaga

Eskolan Kantari + Bilboko Koral Elkarteko Haurren Korua

Ponpiola, Oskorri / Arr.: Emma López Lorente

¡Viva la Navidad!, Tres villancicos populares / Arr.: Emma López Lorente

Piano: Alberto Sáez Puente

Oboe: Pablo García Álvarez

Zuzendaritza: Jose Luis Ormazabal

Bilboko Koral Elkarteko Haurren Korua

Mary sat a Rockin', Greg Gilpin

Oye, Jim Papoulis

Piano: Alberto Sáez Puente

Zuzendaritza: Jose Luis Ormazabal

Leioa Kantika Korala

Springdans fra Vestfold, Arr.: Tone Krohn

Ubi Caritas, Michael John Trotta (1 / 2 / 3)

Lao Rahal Soti, Shireen Abu Khader (4)

Ukuthula, André Van den Merwe (4)

The Rose, Ola Gjeilo

Neguko izpiak, Jon Urizarri (3 / 5)

Apple Tree, Katerina Gimon

Bakarlari: (1) Marene López del Corral / (2) Olatz Barajas
(3) Enola Arruebarrena / (4) Nora Vázquez (5) Ainhoa García

Biolin: Irene Benito / Sofía Olabarrieta

Biola: Ane Marko

Txelo: Jon Marko

Piano: Luis López



Fundación "la Caixa"



Bilboko Koral Elkartea
Sociedad Coral de Bilbao



Perkusio: Ander Lekue
Zuzendaritza: Basilio Astulez

Leioa Kantika Korala + Bilboko Koral Elkarteko Haurren Korua

Cantemos a María, Tradicional / Arr.: Juan Tony Guzmán

Tutti
Hator, hator

ESKOLAN KANTARI

Eskolan Kantari Bilboko Koral Elkartek 2016an sortutako gizarte- eta hezkuntza-proiektua da, musika korala gizarte-bazterkeria jasateko arriskupeko ikasleak dituzten ikastetxeetara hurbiltzeko. Urte hauetan, proiektua gero eta gehiago hazi da, eta, egun, ehun ikaslek baino gehiagok parte hartzen dute, 2024/2025 ikasturtean ikastetxe hauetakoek, zehazki: Deusto Eskola (24), Elejabarri Eskola (14), García Rivero Eskola (35). Ángeles Custodios Ikastetxea (19), Scientia Bilbao Ikastetxea (23), Mujika Eskola (14), Tiboli Eskola (14), Tiboli Eskola (20) eta Basozelai-Gaztelu Eskola (21). arte-hartzaileek koru-prestakuntza jasotzen dute, astero, Bilboko Koral Elkarteko irakasleen eskutik, zeinak ikastetxeetara joanda ikaskideen aurrean egiteko jarduerak prestatzen dituzten ikasleekin, korua jarduera akademikoan txertatuta. Gainera, entzunaretoetan egiten diren kontzertuetan ere hartzen dute parte, Euskaldunan edo Arriaga Antzokian, esaterako, eta Musika-Musicaren moduko goi-mailako kontzertu eta jaialdietan ere bai.

Eskolan Kantari es el proyecto socioeducativo que la Sociedad Coral de Bilbao crea en 2016 con el propósito de acercar la música coral a centros educativos con un índice de estudiantes en riesgo de exclusión social. En estos años de andadura el proyecto ha crecido alcanzando más de un centenar de estudiantes, teniendo inscritos en el curso 2024/2025 los siguientes centros: Deusto Eskola (24), Elejabarri Eskola (14), García Rivero Eskola (35). Ángeles Custodios Ikastetxea (19), Scientia Bilbao Ikastetxea (23), Mujika Eskola (14), Tiboli Eskola (14), Tiboli Eskola (20) eta Basozelai-Gaztelu Eskola (21). Sus integrantes reciben formación coral semanalmente impartida por el profesorado de la Sociedad Coral de Bilbao que se desplaza a sus centros de estudios y realizan actuaciones ante sus compañeros, integrando el coro en la actividad académica. Además, también participan en conciertos en auditorios como Euskalduna o el Teatro Arriaga, participando en conciertos y festivales de primer nivel como Musika-Música.

BILBOKO KORAL ELKARTEKO HAURREN KORUA

Bilboko Koral Elkarteko Haurren Korua 1984an sortu zen, kantua txiki-txikitatik bultzatzeko asmoz. 1994tik, Jose Luis Ormazabal da haren zuzendaria, eta, ia hogeita hamar urte hauetan, koral elkarteko koru sinfonikoa elikatzen duen koru-harrobia sortzea lortu du. Talde gaztea ohikoa da Euskal Herriko kantu koralararen eszenan, dela a *capella* kontzertuetan, dela askotariko ikuskizunetan, Brittenen *War*



Fundación "la Caixa"



Bilboko Koral Elkartea
Sociedad Coral de Bilbao

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Réquiem lanean, kasu, Calixto Bieitoren zuzendaritzapean, baina baita hemendik kanpokoan ere: Ravennako Alighieri Antzokian aritu da, Marseillako Ballet Nazionalarekin batera, hala nola Bartzelonako Musika Jauregian, Sevillako Maestranzan, Madrilgo Errege Antzokian eta Auditorium Nazionalean, non duela gutxi Bach Vermut zikloan parte hartu duen. Halaber, estatuko orkestrekin batera abestu izan du, JONDE, ONE eta Galiziako Orkestra Sinfonikoarekin, kasu, bai eta nazioartekoekin ere: Royal Philharmonic Orchestra eta Mariinsky Antzokiko Operako Orkestra, besteren artean, erreperitorio sinfonikoari edota operakoari helduta, zeinen artean hauek nabarmentzen diren: *I Pagliacci*, R. Leoncavalloreana; *Carmen*, G. Bizetena; *Noeren uholdea*, B. Brittenena; *Boris Godunov*, M. Mussorgskyrena; eta *Tosca*, *Turandot* eta *La Bohème*, G. Puccinirenak. Haurren Korua: Berriki, Euskadiko Orkestraren 2023 - 2024 denboraldia abiatu du, G. Mahlerren *III. Sinfonia* kantatuz, eta, BOS - Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin batera, J. Guridiren *Mirentxu* opera grabatu du, IBS Classicalek ekoiztako Euskalopera proiektuaren barruan.

El Coro Infantil de la Sociedad Coral de Bilbao nace en 1984 con la ambición de potenciar el canto desde las edades más tempranas. Desde 1994 lo dirige Jose Luis Ormazabal, habiendo logrado en estos casi treinta años crear una cantera coral que nutre el coro sinfónico de la institución coral. La joven formación no es sólo una habitual de la escena coral vasca en conciertos a capella o espectáculos como el *War Requiem* de Britten dirigido por Calixto Bieito ya que también ha pisado las tablas del Teatro Alighieri de Rávena con el Ballet Nacional de Marsella, el Palau de la Música de Barcelona, la Maestranza de Sevilla, el Teatro Real de Madrid o el Auditorio Nacional, donde recientemente ha actuado en el ciclo Bach Vermut. Asimismo también ha aunado sus voces con orquestas de ámbito nacional como la JONDE, la ONE y la Sinfónica de Galicia e internacional como la Royal Philharmonic Orchestra o la Orquesta de la Ópera del Teatro Mariinsky con repertorio sinfónico y operístico, destacando: *I Pagliacci* de R. Leoncavallo, *Carmen* de G. Bizet, *El diluvio de Noé* de B. Britten, *Boris Godunov* de M. Mussorgsky y *Tosca*, *Turandot* y *La Bohème* de G. Puccini. Recientemente ha iniciado la temporada 2023 - 2024 de Euskadiko Orkestra interpretando la *III Sinfonía* de G. Mahler y ha grabado la ópera *Mirentxu* de J. Guridi junto a la BOS - Bilbao Orkestra Sinfonikoa dentro del proyecto Euskalopera producido por IBS Classical.

LEIOA KANTIKA KORALA

Leioa Kantika Korala, Basilio Astulezek zuzendua, nazioarteko haur-koru entzutetsuenetakoa da. Bere arrasto artistikoa European, Amerikan eta Asian utzi du, han egindako kontzertu, jaialdi, bira, disko-, -irradi- eta telebista-grabaketa ugarietan, eta sari asko eta asko ere jaso ditu. Bereizgarri ditu maila artistiko bikaina, sonoritate eta musikaltasun liluragarria, egitarau berritzailea, eta koreografia koloretsu eta dinamikoak. 2000. urtean sortua, Leioako Musika Kontserbatorioan, 50 musika-ikaslekin osatzen dute, hainbat espezialitate eta adinetakoak eurak. 15 herrialdetan baino gehiagotan izan da, eta 20 sari baino gehiago jaso ditu nazio-mailako eta nazioarteko jaialdietan. Kantika sarri kolaboratzen du orkestrekin, zuzendari gonbidatuekin eta bakarlariekin, eta maiz parte hartu ohi du operaren munduan edo askotariko denboraldi eta ziklo musikaletan. Zazpi disko grabatu ditu, eta eskaini dituen hainbat emanaldi erkidego- eta estatu-mailako telebistetan eman dira. 2023ko apirilean, koruak World Symposium on Choral Music ekimenean parte hartu zuen, Istanbulen (Turkia). Nazioarteko jaialdirik entzutetsuentzat joa, mundu osoko hamar abesbatzak baino ezin dute parte hartu, eta Leioa Kantika Korala Espainiako Estatuaren ordezkari bakarra izan da. Nazioarteko kritikak aho batez goraipatu eta txalotu ditu koruaren ahots-kalitatea eta proposamen estetikoa. 2024ko udan, Taipei International Choir Festival jaialdian parte hartu zuen gonbidatu gisa, uhartean 8 kontzertu eta hiru masterclass eskainiz. Duela gutxi, Lituaniara joan da, Kultura Ministerioak gonbidatuta, Vilniusen eta Klaipėdan abesteko.



Fundación "la Caixa"



Bilboko Koral Elkartea
Sociedad Coral de Bilbao



2025eko maiatzean Suitzara joango da bere historian bigarren aldiz Europaisches Jugendchor Basel lehiaketan parte hartzeko, Europa eta Kamerungo beste 11 talderekin batera.

Leioa Kantika Korala dirigida por Basilio Astulez, se sitúa entre los coros infantiles de mayor prestigio internacional. Ha dejado su huella artística por Europa, América y Asia a través de sus innumerables conciertos, festivales, giras, galardones internacionales y grabaciones discográficas, radiofónicas y televisivas. Impacta por su excelente nivel artístico, su increíble sonoridad y musicalidad, su innovadora programación, así como sus coloridas y dinámicas coreografías. Creada en el año 2000 en el seno del Conservatorio de Música de Leioa, está formada por 50 jóvenes estudiantes de música de diversas especialidades y edades. Ha visitado más de 15 países y ha recibido más de 20 premios en certámenes nacionales e internacionales. Kantika colabora frecuentemente con orquestas, directores invitados y solistas y son muy habituales sus incursiones en el mundo de la ópera o en temporadas y ciclos musicales de diversa índole. Ha realizado siete grabaciones discográficas y varias de sus actuaciones han sido retransmitidas por televisiones autonómicas y nacionales. El coro ha participado recientemente en el World Symposium on Choral Music, celebrado en Estambul (Turquía) en Abril de 2023. Considerado como el evento de mayor proyección internacional, sólo diez coros de todo el mundo tienen acceso a este festival en el que Leioa Kantika Korala ha sido el único coro representado al estado español. La crítica internacional ha elogiado y aplaudido de manera unánime su calidad vocal y propuesta estética. En el verano de 2024 participa como invitada en el Taipei International Choir Festival ofreciendo 8 conciertos y tres Masterclass en la isla y recientemente ha viajado a Lituania por invitación del Ministerio de Cultura para cantar en Vilnius y Klaipeda. En Mayo de 2025 visitará Suiza para participar por segunda vez en su historia en el Europaisches Jugendchor Basel junto a otros 11 grupos seleccionados de Europa y Camerún.